



I. ATALA  
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA  
Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

Lanpostuen Zerrenda aldatzeko Erabakia

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko uztailaren 21ean eginiko ohiko bileran (3/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa*: Ondoren zerrendatzen diren lanpostuei esleitutako derrigortasun-data zazpigarren plangintzaldiaren amaiera-datara atzeratzea, hau da, 2027ko abenduaren 31ra arte:

Lanpostua			Organiko funtzionala	
Lanpostua	Izena	Lag	Org.	Izena org.
1007	BIRJINETXE A.Z-ko ZUZENDARIA	0001	22102	BIRJINETXE Z.A
1201	ZERBITZU OROKORREN EKONOMIALARIA	0001	2322	EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ARLOA
4071	BIRJINETXE Z.A-ko ARDURADUNA	0001	2210222	BIRJINETXE Z.A-ko ZERBITZU OROKORRAK

*Bigarrena*: Aurreko atalean aipatutako lanpostuen zerrendan egindako aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea. Aldaketa horiek Gobernu Batzordean onartzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

*Hirugarrena*: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, arrazoi-tzat balio du ebazpen honen aurrekarietan jasotako txostenak.

*Laugarrena*: Ebazpen honen berri ematea interesdunei, Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari, Hautaketa eta Hornikuntza Burutzari, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari eta GUFEn ordezkariak duten sindikatuei.

*Bosgarrena*: Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, erabakia jakinarazi/argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.»

Bilbon, 2025eko abuztuaren 6an.—GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia